

TOKIKOM

2022ko iraila | 228. zenbakia

amakar!

txaldizkaria

Iñaki Molano, bizargina

Hirugarrena
munduan



AMAR

ILEAPAINDEGIA (ZAMUDIO)

URIBE PLAZA 1 / 944 520 419



TIK TAK

ERAMATEKO JANARIA (DERIO)

BESTORRENE KALEA 5 / 944 545 555



ZUK
EGITEN DUZU
Txorierrri!




BIZKARGI

TABERNA (DERIO)

AZKUE RESURRECCION MARIA KALEA 3 / 666 115 266



GORBEIA MERTZERIA

ZAMUDIO

GORBEIA KALEA 6 / 946 559 006

-  **6** Iritziak
-  **7** Laburrak eta albisteak
-  **12** Gurean izan da... AMAK musika-taldea
-  **14** Pabloren erronka
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Menditik patxadaz... Galtzadak
-  **20** Gai nagusia... Iñaki Molano bizargina
-  **24** Iraia iturregi, Athleticen entrenatzailea
-  **26** Panpa-lezkarik ez!
-  **28** Zu argazkilari... Oporretako irudiak
-  **30** Berbalagun
-  **32** Emaus
-  **33** Herbarioa... Intsusa
-  **34** Teknologia... Dart misioa
-  **35** Aikorrizketa... Ardi-txakurra edo
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 AMAK musika-taldea



14 Pablaren erronka



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Eder Merino, Asier Oruetxebarria, Mari Carmen Noya, Jose Angel Mentxaka, Iñaki Olabarrieta, Joanes Camara, Idoia Andres, Xabier Diaz eta Txiribita

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Kattalin Barcena (688 782 642)

Banaketa: Baires

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik



IK
TXOR

ikastegi homologatua

**LARRABETZU
DERIO
MUSIKA ESKOLA**

MATRIKULA ZABALIK



Errebale, 7 behea
94 455 70 66

Larrabetzu eta Derio Musika Eskola

- Txorierrin **50 urteko eskarmentua** dutela, **hainbat musika-tresna** irakasten dituzte: saxofoia, panderoa, eskusoinua, pianoa, txilibista, bibolina, gitarra elektrikoa eta klasikoa eta bateria, batzuk aipatzearren.
- Eskolak bakarka zein taldeka ematen dituzte. Gainera, hizkuntza musikala eta armonia ematen dute **lau urtetik gorako lagunentzat**. Musika-hezkuntza arautua zein ez arautua eskaintzen dute.
- **Izar Argia abesbatza** akademiaren baitan sortua da eta 30 urte baino gehiago daramatza euskal kantak Txorierriko umeekin abesten eta euskal musika-kultura zabaltzen.
- **Telefonoa:** 638 707 201
Emaila: larrabetzum.e@gmail.com

Oakland akademia

- Oackland Zamudioko akademiak ingeles-akademiak **hainbat mailatako eskolak** eskaintzen ditu, baita ikastaro **trinkoak** eta **enpresetarako ikastaro bereziak** ere.
- Oackland akademian adituak dira ikasleak Cambridge, First, Advanced, Pet eta Ket tituluak lortzeko prestatzen: % **90ek gainditzen** dute azterketa.
- Akademian, **ikasketa-prozesu indibidualizatu**en aldeko apustua egiten dute, ikasle bakoitzaren erritmoa eta garapen-prozesua kontuan hartuta. Izena ematea doakoa da eta behin hura emanda hasi daiteke eskola-saioretan parte hartzen.
- **Telefonoa:** 946 522 857
Emaila: josu@oaklandzamudio.com



OX
OAKLAND
ENGLISH
946 52 28 57

ASI IERRIN



Bertoko Soinu Tresnen Elkarte

- **Nagusientzako zein gaztetxoentzako** pandero- eta trikitia-eskolak ematen dituzte Zamudion, baita nagusientzako euskal kantuen ikastaroak ere. Gainera, ikasle-kopuru nahikoa egonez gero, beste ikastaro batzuk egiteko aukera eskaintzen dute, esterako, txalaparta, alboka, bodhran-a, gazteentzako euskal kanten ikastaroa.
- Izena emateko, telefonoz deitu daiteke, edo helbide elektronikora idatzi.
- **Telefonoa:** 689 246 844
Emaila: bertokozamudio@gmail.com

Estudios 10 ikastegia

- **Hogeita bost urteko baino gehiago eskarmentua** dute irakaskuntzan. Eskola pertsonalizatuak ematen dituzte, baita talde txikietan ere. Halaber, arreta-defizita duten umeentzako eskola-saioak eskaintzen dituzte.
- **Hainbat hizkuntza** irakasten dituzte ikastegian, hala nola euskara, gaztelania eta ingelesa. Gainera, etxeko lanak egiten laguntzen dute, sarrera-probak prestatzen (unibertsitatera, lanbide-moduluetara...), oposizioak prestatzen eta oinarriko tituluak ateratzen (nagusiak).
- **Matrikula doakoa** da eta urte osoan dago eskolak jasotzeko aukera.
- **Telefonoa:** 944 545 013
Emaila: hamar.ikastegia@gmail.com

X Koltza Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 13 X

2110. urtean

Ez dot lehenengoz gai honi buruz idazten, baina, aste honetan, bi albiste irakurri ondoren eta esku artean daukadan Rosa Monteroren *Los tiempos del odio* liburua hasi ostean, jatorkun Lurra planetari buruz idaztea pentsatu dot. Eritxi artikulu honek ez dauka inolako soluziorik emoteko helbururik. Xedea, naturarekiko hartzen doguzan erabagiak aldatzen ez badira, balizko etorkizunaren radiografia txiki bat egitea baino ez da.

Aitatutako liburuak 2110. urteko istorio futurista bat kontatzen dau. Estralurtarrak, androideak eta imajina daikegun edozein gailu agertzen dira. Baina, gauzarik errealea, nire ustez, uraren erabilera izan da. Ur-dutxa bat luxu bihurtu dan etorkizunean oinarrituta dago. Etorkizun hori, gaur egun, planetaren eskualde askotan, oraina da. Kendu burura etorri jatzuen Afrikako basamortu bateko argazki hori, eta pentsatu Bizkaian dagoen Karrantza herrian. Egoe-

ra ez da hain larria, baina "Karrantza urez hornituko duten kamioiak udalerrira iristen hasi dira" lerroburua eitb.eus webgunean irakurri dot. Beharbada, urte batzuk barru, Karrantzan, liburuan moduan, dutxa bat hartzea luxu hutsa izango da.

Bigarren barria itxaropentsuagoa da. Irailak 15ean, *Berria* egunkarian irakurritakoa da. Lerroburuak holan dino: "Patagonia konpainiaren jabeak enpresa oparitu nahi du, natura zaintzeko". Ezagutzen ez dauanarentzat jakin dagiala Patagonia enpresak mendirako arropa eta denetariko tramankuluak egiten dauzala eta 1300 milioi euro inguru fakturitzen dituela urtean. Yvon Chouinarden, Patagonia kopainiako sortzailearen esanetan, planeta oparo bat nahi badogu, denok egin beharko dogu ahal doguna. Egia esan, erabaki ausarta izan da. Lerroburu benetan deigarria. Zertan amaituko dan beste istorio bat da.



ASIER ORUETXEBARRIA
Irakaslea

Agian, honelako jarrera gehiagogaz, 2110. urtean planeta oparo hori ikustea egia izango da. Imajinatzen dozue Euskadin sustraituriko konpainia erraldoi horreetako bat holakorik egiten? Uste dot oparotasun hori planetarako baino beste leku baterako bilatuko dabela.

Igaro dogun uda bero eta lehor honen ostean, pentsatu behar dogu planeta oparo hori benetan gura badogu, guztiok ipini beharko dogula jasangarritasunaren aldeko hondar ale txiki bat gitxienez.

Iraileko ostegun hartan "taberna osoa" esateko promesa egin zuten. Bazuten alkoholetan zer ito: mina.

Ikasturte hasierak ekartzen duen drama-puntuak lagunduta jesarri ziren mahai inguruan, entzuteko baino, hitz egiteko prest. Garagardo artean hasi zen norgehiagoka: batek azpimarratu zuen eztulak jota ahul sentitzen zela; besteak haren hitzak gutxietsi zituen eta ahotsa altxatuz esan zion oraindik A gripearen ondorioak pairatzen zebilela, eta hori bazela sufrimendua. Ika-mikari atsedena eskaini zioten zurrutada bana hartzeko.

Han jarraitu zuten, ea gehien nork sufritzen zuen, ea sakonagoa noren

Mina



EDER MERINO
Irakaslea

mina zen, eztabaidatzen, aurpegiratzen. Halako batean isildu ziren, bata besteari begira; orduan konturatu ziren ez zeudela han besteari entzuteko: barrenak hustutzeko geldituak ziren, inongo leziorik itxaron gabe. Sarritan, daramagun zama arintzeko, norbaitek entzutea baino ez dugu behar, inongo epaiketarik gabe. Bakoitzak bere errealitatea, bere egia, bere mina.

Behingoan ohartu ziren erantzuna baino lehen galdera etortzen dela eta, eman orde, iritziak beti eskatu behar direla. Beti.

Barre egin, eta erabaki zuten ares-tian egindako promesa hark beste bi garagardo merezi zituela.

Alaia
Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua
fruta-denda
Taller, 5
48170 Zamudio
946 850 585

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

ama
taberna 3
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Gazte bila dabil Zamudioko Kamara Korala, 'Fair Saturday' egitasmoan parte hartzeko

Zamudioko Kamara Koralak Fair Saturday egitasmoaren inaugurazio-ekitaldian hartuko du parte, eta zortzi urtetik 17 urtera arteko gazteak animatu nahi ditu haiekin batera agertokian aritzera. Inaugurazio-ekitaldia azaroaren 25ean, 20:00etan, izango da Bilbao Arenan (Miribilla), eta han batuko diren musikarien eta artisten artean egongo dira Kalakan, Gatibu, Maren eta Deabru Beltzak. "Oso esperientzia polita da; ea gazteak animatzen diren!".

Entseguak urriaren 7an hasiko dira eta barikuetan egingo dira, 17:00etan, Zamu-

diotoren. Izena emateko, Zamudioko Kamara Koralak kideekin harremanetan ipini behar da 657 775 911 telefonora deituta edo idazkaritza@zamudiokokamarakorala.eu helbide elektronikora idatzita.

Gizartean eragin nahi duen kultura-egitasmoa da Fair Saturday eta azaroaren azken zapatuan egiten da, Black Friday hitzordu kontsumistaren hurrengo egunean, hain zuzen. Kultura arloko artistek eta erakundeek bat egiten dute egitasmoarekin, kulturaren eta enpatiaren bidez mundu hobea egiteko nahian.



a: Pixabay (Pexels)

Txorierriko Enplegu Topaketa

EGAZ Txorierriren eskutik, urriaren 6an Txorierriko Enplegu Topaketa 2022 egingo da Kultur Birikan, Derion. Azaldutakoaren arabera, jardunaldiaren helburua da eskualdeko enpresek lanpostuak betetzeko erronkak eta aukerak aztertzea, eta kontratazioa zuzendutako dirulaguntzei buruzko informazioa zabaltea. Gainera, 1.000 euroko pizgarria emango diote jardunaldira joaten den eta lehenengo kontratazio mugagabea egiten duen enpresari. Leku mugatua egongo da. Jardunaldia tokiko enplegua sustatzeko 3R programaren barruan dago eta Bizkaiko Foru Aldundiak laguntzen du. Informazio gehiago eta izena ematea, somostxorierri.com webgunean.



LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-itxialak, orokorrak
Auzokoen konsumitzaiek
Muntzotzeko garbi-itxialak
Bulegoak eta lokalak
Orokor amariako garbiketa
Ikastetxeak
Zabur bilketa

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21



WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Ernesto Guinea da irailako irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.

Derio

Irailak 29, eguena

- 17:30 Umeentzako mozzorro-lehiaketa.
- 18:00 Xaibor diskofesta.

Irailak 30, barikua

- 19:00 El Despiste fanfarrea.
- 20:00 Txitxi-burruntzia.
- 22:30 Urtezahar-gau txinatarra (Izena eman behar da: 6 euro).
- 00:00 Urte berri txinatarra.
- 02:00 Montaditoak.

Urriak 1, zapatua

- 09:00 "Julio Garitano" Areto-futbol Txapelketa.
- 10:00 Goizeko traka.
- 14:00 Indaba-jana.
- 15:00 Azkenburuko sorpresa.
- 16:00 Bingo sorpresa.
- 20:00 Playback-a.
- 00:30 Berbena: Super Hollywood. Ondoren, diskofesta.

Urriak 2, domeka

- 10:00 Goizeko traka.
- 12:30 Umeentzako marrazki-lehiaketa.
- 13:00 Bermuta.
- 15:30 Jai-batzordearen bazkaria.
- 17:30 Olinpiadak.
- 19:00 Argazkiak eta bideoak ikustea.
- 19:30 Txokolatada.
- 20:00 Sariak eta jaiak amaitzea.



Sanmigelak gozaten dabilta Lauroetan eta Derion

Pandemiak baldintzatutako bi urteren ostean, Lauroetan eta Derion gogotsu dabilta San Migel jaiak ospatzen. Dagoeneko ekintza asko egin dira, baina datozen egunotan ere zer gozatu eta zer egin egongo da leku bietan. Izan ere, jai-batzordeek egitarau oparo bana prestatu dute, adin guztietako herritarrek ederto pasatu dezaten.



Gaueko autobus-zerbitzua Derion

Doako zerbitzua da eta barikuan eta zapatuan eskainiko da, 00etatik 06:00etara. Autobusa herriko auzo guztietatik pasatuko da ibilbide zirkularra eginez; hala ere, eskaera araberako geldialdiak ere egingo ditu. Autobusa orduro aterako da Mungialde Etorbidetik, kiroldegia-aren paretik hain zuzen ere.

Derioko Udalak azaldu moduan, neurriaren helburua da herritar guztiak etxera seguru heldu daitezela, bereziki emakumezkoak. Era berean, joan-etorrietarako herritarrek autoa hartzea ekidin nahi dute. Bestalde, udaltzainen presentzia ere areagotuko da jaietan eta gauero patruilatuko dute. Edozein gorabehera jakinarazteko, telefono honetara deitu behar da: 616 491 637 (Udaltzaingoa).

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisoló 4, behea B 48150 SONDIKA **634 410 470**
 auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Itonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeKone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea: umeak

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Lautoeta (Loiu)

Irailak 29, eguena. San Migel

- 12:00 Meza.
- 13:00 Briska-txapelketa.
- Eguerdian: poteoa.
- 19:00 Bertsolariak: Etxahun Lekue, Jone Uria, Arkaitz Estiballes eta Oihana Bartra.
- Ostean, talo eta txistorra.
- 22:00 Erromeria.

Irailak 30, barikua

- 20:30 Agurtzane eta Jon Elustondo bikotearen trikiti-emanaldia.

Urriak 1, zapatua

- 09:00 XV. mendi-ibilaldia.
- 13:00 Mendi ibilaldiko kopaua eta sariak banatzea.
- 18:00 Umeen jolasak: poniak, zirku-tailerra, jolasak...
- 20:00 Xaibor.
- 21:15 Saiheski- eta txistorra-jana.
- 22:00 Xaibor.

Urriak 2, domeka

- 11:00 Kalejira.
- 12:00 Meza.
- 13:00 Txiki Eder txakurtegiaren era-kustaldia.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- Bazkalostean, kanta eta dantza herrikoak, Nafarroa taldearen eskutik.
- 20:00 Zozketa.
- 20:30 Txokolatada eta jaien amaiera.



Jone Uria bertsolaria. a: Hodei Torres (www.hiruka.eus)

a: Larraburu jauregia. www.uribe.eu



Hitzarmena, Loiuako Larraburu jauregian haurreskola atontzeko

Loiuako Udalak eta Arrietane Fundazioak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, Larraburu jauregian haurreskola atondu ahal izateko. Josu Andoni Begoña alkateak bere webguneak adierazi duen moduan, herritarrak aspalditik dabilta herrian haurreskola zabaltzeko eskatzen eta hitzarmenari esker laster zabaldu ahal izango da. Gainera, haurreskola abiapuntua izan daiteke herrian eskola publikoa ere egoteko.

Arrietane Fundazioa da Larraburu jauregiaren jabea. Hitzarmena dela eta, fundazioak doan utziko dio jauregia udalari, beheko solairuan haurreskola atondu dezaten. Bestalde, Loiuako Udalak haurreskolaren proiektua aurkeztu du. Horren arabera, sarbide berria egingo litzateke haurreskolara sartu eta handik atera ahal izateko, eta bertan izango lirateke, besteak beste, bi ikasgela, erabilera anitzeko gunea, haur-kotxeak uzteko lekua, bulego eta komunak.

Zure antzinako bitxiak ekarrita, urrea berrerrabiltzen dugu, zure ametsetako harribitxia sortuz.

Bitxitegia
Zuluaga
Juan Bautista Uriarte, 49 | GALDAKAO
Tel. 94 456 73 74

...eta forma ematen diogu...



Zure antzinako bitxiak ekarrita...



...urrea urtzen dugu berrerrabiltzeko...



...zure ametsetako harribitxia sortuz.

Dirulaguntzak bantuko dira Loiun eta Derion

Loiun ez dago udal-kiroldegirik eta, horregatik, hango udalak dirulaguntza emango die Txorierriko kiroldegietara joaten diren loiuztarrei. Dirulaguntza bakarra eskatu ahal da, eta eskatzailea kiroldegi baten baino gehiagoren erabilzailea bada, abonurik garestiena hartuko da kontuan. Eskaerak urriaren 13ra arte aurkeztu ahal da udaletxean, eta horretarako inprimakia bertan edo www.loiu.eus webgunean eskuratu ahal da. Loiuko Udalak 3.600 euro bideratuko ditu dirulaguntza hauetara.

Bestalde, langabetuen prestakuntzarako eta kontrataziorako laguntzak eskatzeko epea zabalik dago Derion. Dirulaguntzak abenduaren 1era arte eskatu ahal dira. Derioko Udalak guztira 18.000 euro bideratuko ditu herriko langabetuen prestakuntzara eta kontrataziora. Zehatz-mehatz, 6.000 euro zuzenduko dira langabetuen prestakuntzara: diru-partida proportzionalki banatuko da eskatzaileen artean eta onuradun bakoitzak gehienez 500 euro jasoko ditu. Bestalde, 12.000 euro ipiniko dira, enpresei Derioko langabetuak kontratatzen laguntzeko. Informazio gehiago eta dokumentazioa, deriokoudala.net webgunean.

Ibarrak domina bi lortu zituen Sokatira Munduko Txapelketan

Irailean, Sokatira Munduko Txapelketa jokatu zen Holten herrian, Herbehereetan. Ohikoa denez, Euskal Herriko selekzioak dominak lortu zituen txapelketan, baita talde euskaldunek ere. Eta horietan Unai Ibarra ibili zen. Asuakoak urrezko domina lortu zuen 560 kiloko kategorian bere klubarekin, Laukizko Gaztedirekin; eta zilarrezkoa, kategoria berean, euskal selekzioarekin.

“Txapelketa bi egiten dira: batean klubek hartzen dute parte; eta bestean, herrialdeek. Iaz ere urrezko domina lortu genuen; beraz, faboritoak ginen. Kluben mailan, finala irabazi genuen, baina herrialdeen mailan, bigarren postua lortu genuen. Final biak talde beraren kontra jokatu genuen, suitzarren kontra. Oso arerio gogorrak izan ziren: lehenengo finala izu-

garri kostatu zitzaigun irabaztea; baina bigarrenean, ezinezkoa izan zen, haiek hobeto ibili ziren eta”.

Bigarren finaleko porrota mingarria da oraindik, baina, Ibarraren esanetan, denboraren poderioz ohartuko dira zilarrezko dominaren balioaz. Txapelketara ordezkari joan arren, Asuakoak ezin izan zuten txapelketan parte hartu. “Pena da, baina taldean sartzea oso zaila da eta ordezkaria izana ere estimatzen dut. Futboleko gauza bera gertatzen da, bakarrik hamaikak joka dezakete. Dena dela, garrantzitsuena taldea da eta beti egon behar da taldeari laguntza emateko prest. Esperientzia polita bizitzeko aukera izan dut Herbehereetan. Datorren urtean, txapelketa Suitzan izango da, eta erronka ederra”.



Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zainatze Berriak
Logopedia
Podologia
Kirurgiazalea

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txorierreri etorbidea, 9 - Lorja | Antzaga etorbidea | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 SONDIKA
944 711 282
Info@inmobiliariatxorierrri.com

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE

Eguneko menuak
Ospakizunak

Arebalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

BASALBEITIKO
TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Herriko txakolina

Bizkaiko Txakolina

Goitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

500 LAGUN BATU ZIREN ZAMUDIO-ZAMUDIO ZIKLOTURISTAN.

Ilrailaren 17an Zamudio-Zamudio Zikloturista egin zen 23. aldiz, Bidekoetxe parkean. Guztira 500 lagunek hartu zuten parte bertan. "Eguraldi ederra egon zen eta giroa, oso polita. Urte bi eman ditugu saioa antolatu barik eta jendea gogotsu zebilen. Gainera, ume pila aritu ziren eta horrek adierazten du zaletasuna badagoela eta etorkizuna baduela", esan du Zamudioko Udalak, martxaren antolatzaileak. Zikloturistaren inguruan jai-eguna antolatzen da. Goizean, lasterketa egin zen eta horren ostean, umeentzako mountain-bike zirkuitua. Gainera, herri bazkaria egin zen, eta bazkalostea girotzeko, erromeria.

a: Mari Carmen Noya



Sondikako eskolako patioa estaltzeko lanak urte amaierarako bukatzea espero da

Udan, lan garrantzitsuak egin dira Sondikako eskolan, hala nola jantokia handitzea, sukaldea eta beste gela batzuk berritzea, jolas berriak ipintzea eta aparkalekua berritzea. Gainera, uztailen patioa estaltzeko lanak hasi ziren, eta, aurreikuspenen arabera lanak urte amaierarako amaituko dira. Guztira 983.452 euro bideratuko dira kanpoko estalkia ipintzera. Estalki finkoa izango da eta berari esker ikasleek, irakasleek

eta langileek euren burua eguraldi txarretik eta euritik babestu ahalko dute eskolako ordutegian zein aisialdian. "Eusko Jaurlaritzari helarazi moduan, lekuaren ezauzgarriak direla-eta ezinbestekoa da bertan estalkia ipintzea. Estalkiari eta Gorondabeko kiroldetako azpiegituri esker Sondikako eskolak lehen mailako instalazioak izango ditu", esan du Xabier Zubiaur alkateak.



Emakumeen gorputzari eta sexualitateari buruzko ikastaro-sorta Zamudion

Zapata Gorriak Zamudioko talde feministak antolatuta, helburua da "patriarkatuak gure gorputzari eta sexualitateari buruz esaten duena albo batera uztea eta autokontzientzia lantzea. Gure sexualitatea gurea delako eta gure plazererako delako". Ikastaroak edozein adinetako emakumeentzat dira eta Lucia Nieto Emargi elkarteko soziologoak eta ikertzaile feministak zuzenduko ditu.

Lehen ikastaroa irailean egin da eta bertan emakumeen sexualitatea izan dituzte hizpide. Hurrengo ikastaroa, "Zoru pelbikoak emakumeengan duen garrantzia", urriaren 20an egingo dute; eta laugarrena, "Gure gorputzen hipersexualizazioa: pornografia eta prostituzioa, azaroaren 17an. Azken ikastaroa abenduaren 15ean izango da eta bertan ziklo menstrualaz eta menopausiaz mintzatuko dira. Ikastaroan parte hartzeko, ez da beharrezkoa izena ematea.

"Gure gorputzari buruz hitz egiten denean, badirudi izaki asexualak garela. Gainera, gure sexualitateari buruz hitz egiten denean amatasuna aipatu ohi da, sexu-indarkeria, prostituzioa, pornografia... Objektuak legez tratatzen gaituzte azken batean: mundura umeak ekartzeko edo gizonen sexualitatea asetzeko" adierazi dute. Ikastaroen bidez erreibindikatu nahi dute emakumeen sexualitatea. "Sexualak garela esan nahi dugu, gure gorputzaren ezagutza handitu, sexuari eta gure sexualitateari buruz askatasunez hitz egin, kezkak argitu, gure sexu-harremanak hobetu eta abar".

t: Itxaso Marina

Nola irten zen upategiko emanaldia?

Oso gustura egon ginen. Lekua zoragarria da eta dena oso polit zegoen, oso gozo. Gainera, lagun gutxiren arteko emanaldia izan zen, eta gozotasun hori soila bada erakargarria. Giro polita egon zen, eguraldi ona...

Eta uda?

Uda ere oso ondo. Beharbada, aurrekoak baino lasaiagoa izan da; denetarako denbora izan dugu: emanaldiak egiteko, familiarekin oporretara joateko, lagunekin egoteko... Bestalde, pandemiaren ondoren jendea gogotsu ibili dela nabaritu dut: kalera irteteko gogotsu, musika gozatzeko, antzerkira joateko...

Euskal Herriko emanaldiez gainera, Holandan eta Alemanian izan zarete irailean – iaz, Portugalen–; urrian, besteak beste, Galiziara eta Bartzelonara joango zarete...

Gure helburua beti da ondo pasatzea, Euskal Herria zein Alemania izan. Egiten duguna transmititzea lortzen badugu, ondo pasatzen badugu eta entzuleek ere ondo pasatzen badute, helburua bete dugu.

Dena dela, Oñatiko trikiti-jaialdi hartatik laukote moduan irteteko aukera zegoen susmorik edo bihozkadarik –txiki-txikia izan arren– izan zenuten?

Ez, horixe! Gauza da duela zenbait urte jaialdian parte hartzeko deitu zigutela Kristinari eta Amaiari, Maixari eta Itziarri eta Maiderrri eta bioei. Kristina eta Amaia animatu ziren, baina Itziar eta Maider, ez; orduan, Maixak deitu zidan elkarrekin jotzeko. 2018an, jaialdiaren 10. urteurrena dela eta, bertan aritutako bikoteak batu nahi izan zituzten eta laurok hiruzpalau kanta elkarrekin jotzeko proposamena egin ziguten. Eta jo genituen, buruan inongo proiekturik edo asmorik gabe. Baina jaialdi horren ostean beste emanaldi batzuk etorri ziren eta gauza handituz joan zen... Orduan ikusi genuen proiektua sortzeko aukera zegoela. Patuak elkartu gaitu, kasualitateak.

Patuaz gainera, tartean zerbait gehiago egongo zen, ezta?

Lauok dugu musikarekiko pasioa eta lauok maite dugu trikitia. Gainera, lauok gara amak eta oso une egokian batu gara, haurrak nahiko koskortuta

“Patuak elkartu gaitu, ka

ALAITZ TELLETXEA | AMAK taldea



AMAK musika-taldearen doinuak gozatu ahal izan zituzten irailaren bigarren zapatuan Gorka Izagirre Larrabetzuko upategira hurbildu zirenek. Izan ere, Mahasti Artean jaialdiaren baitan, trikitia eta txakolina eskutik helduta ibili ziren bertan. AMAK egitasmoaren arimetako bat da Telletxea, eta berarekin izan gara solasean.

ditugu eta. Lauok jotzen ditugu trikitia eta panderoa, abesten dugu... eta horrek kanta bakoitzarekin konbinazioak egiteko aukera ematen digu.

Plazan sortutako egitasmoa da AMAK, eta diskoa gero etorri da; alde-rantzizko bidea-edo egin duzue.

Diskoa oparia izan da, ze hasieran ez genuen diskoa ateratzeko inongo asmorik. Taldea osatuta, hasierako proposamena izan zen emanalditxo batzuk egitea, eta diskoetxeak diskoa kaleratzea proposatu zigunean erantzun genuen ikusiko genuela. Egunik egun bizi nahiago genuen, eta sentsazioen arabera aurrera egin.

Nire kasuan, proiektu hau sorpresa handia izan da, ezen nire burua egitasmo puntual batzuetan ikusten nuen, eta ez proiektu handietan. Baina bat-batean nire burua ikusi dut hor, gustura eta pozik... Bestalde, egia da prozesua beste modu batekoa izan dela; hala ere, gustatzen zait horrela gertatu izana: batzuetan, bizitzak bide batean jartzen zaitu, eta ondo dago bideak esaten dizuna hartzea eta hari jarraitzea.

Zenbait musikaririk hartu dute parte diskoan; Zigor DZ eta Txus Aranburu, tartean. Bestelakoak dira diskoaren emaitza eta zuzenekoak.

sualitateak”



*“Euskara dugu hizpide,
memoria historikoa,
amorrua... baina batez
ere emakumeengan
ardazu nahi izan dugu”*

Plazan hasiera-hasieratik erabiltzen dugun formatua da perkusioa, ahotsa eta trikitia; diskoan, bestalde, instrumentu gehiago sartu nahi genituen, eta beste ukitu bat eman. Xabi Solanok produzitu du diskoa eta pixka bat modernoagoa-edo da. Hala ere, diferente izanagatik, argi genuen zuzeneko esentziari eutsi nahi geniola; hortaz, diskoaren kantzak berriz moldatu behar izan ditugu zuzenean jo ahal izateko.

Kanten hizkiak zeuk idatzi dituzue, baita Karmele Jaiok eta Onintza Enbeitak ere.

Kanta-idazleak emakumezkoak izatea nahi genuen, eta esentziari eustea. Euskara

Gozotasuna

Lau soinu, lau pandero, lau ahots... lau emakume dira AMAK musika-taldea. Alaitz Telletxeak, Maixa Lizarribarrek, Amaia Orejak eta Kris Solanok osatzen dute AMAK, eta taldearen izena haien izenen lehenengo letrarekin egindako jolasaren emaitza da.

Eskarmentu handiko musikariak dira lauak, eta 90eko hamarkadan erreferente bihurtu ziren trikitia munduan. Horrela, Alaiz eta Maider trikiti-bikoteko kidea izan zen Telletxea; Maixa eta Ixiar bikoteko kidea, Lizarribar; eta M-n ezten taldeko partaideak, Oreja eta Solano. Eszenatokitik kanpo hainbat urte eman ondoren, Oñatiko Trikitixa Jaialdiak batu zituen 2018an eta, ia konturatu barik, AMAK egitasmoa osatzeko lehen urratsak egin zituzten. Plazetara itzulita, izen bereko diskoa kaleratu zuten iaz. “Berotasuna eta gozotasuna sentitzen dugu orokorrean, emanaldietara normalean jendea gerturatzen da eta. Gainera, baten bat kantaren bat abesten ikusiz gero, bada, horrek egunduko poza ekartzen digu”.

dugu hizpide, memoria historikoa... baina batez ere emakumeengan ardazu nahi izan dugu. Horrela, bada, amari eskainitako kanta dago, Karmele Jaiok idatzitakoa. Nire ustez, erabat asmatu du guk amatasunari buruz esan nahi genuenarekin: guk musika pasatu genion eta izugarria da nola adierazten duen ama izatea zer den... Emakumeei lotutako beste kanta bat “Atsolorra” da, Onintza Enbeitak idatzitakoa, umeen jaiotzari lotutako antzinako ohiturari buruzkoa; herri batzuetan ohitura hori berreskuratzen dabilta... Beste aldetik, amorrua ere jorratzen dugu “Amorra zaitetz” abestian, izan ere, badirudi beti ondo eta pozik egon behar dugula, baina batzuetan amorratu eta haserretu ere egiten gara.

Zeintzuk dira AMAK talderako dituzuen planak?

Epe motzeko proiektuak dira: udazkenean kanpora joateko asmoa dugu, kolaborazio pare bat egin... Gero geroakoak. Momentua bizi dugu.



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Pablaren erronka

Urriaren 5ean, 8:00etan, Jose Luis Lopez albacetetarra Zamudiotik aterako da, Txorierriko udalerraren eta bere herriaren artean 1.100 kilometro egiteko. Kilometroak mendiko bizikleta gainean egingo ditu, jarraian, eta bakarrik geldituko da oinarrizko beharrianak betetzeko. Albacetera urriaren 8an ailegatzea espero du, 80 orduren ostean. Helburua da umeen minbizia ikertzeko dirua batzea, eta biltzen dena neuroblastomaren gaineko bi ikerkuntza-lanetara bideratuko da: bata Gurutzetako ospitalean egiten dabilta; bestea, Nafarroako Unibertsitatean.



t: Itxaso Marina Ondarroa

Pablo da Lopezen semea, eta bi urte zituela neuroblastoma diagnostikatu zioten, umeen minbizi-motarik agresiboetako bat. Gaixotasuna gainditzeko oso aukera txikia zuen Pablok, % 30ekoa; hala ere, oso bi urte latzen ostean eta dauden tratamendu guztiak –kimioterapia, injekzio bidezko erradioterapia, ebakuntza, hezurmuinaren transplantea, erradioterapia eta immunoterapia– hartu ondoren, borroka irabazi zion minbiziari eta gaur egun bederatzita urteko ume osasuntsua da. Gurasoek argi dute Pablo ikerkuntzari esker dagoela bizirik; baita, ikerketa-proiektuetarako dirua batzeko, beste guraso batzuek aurretik egindako ahaleginari esker ere.

Konbentzimendu horretatik jaiotzen zen "Pablaren erronka" ekimen solidarioa. Zamudiokoa da ekimenaren hirugarren eta azken saioa: 2017an Bartzelona-Albacete saioa egin zuten, eta 2018an, Sevilla-Albacete. Guztira 131.000 euro batzea lortu dute eta dirua Estatuan jorratzen dabilzan zazpi proiekturen artean banatu da. Hiru saioek lelo bera dute: ikerketa da bizitza. "Horregatik guk ez dugu babeslerik, bizitzaren emaileak baizik. Ziur nago Pablaren erronkaren bidez batzen den dirua baliagarria izango dela etorkizunean beste ume batzuk sendatzeko. Gaur egun umeen % 40k gainditzen dute neuroblastoma eta helburua da % 100ek gainditu dezatela", esan digu Lopezek.

Albacetarra Ingeteam enpresak Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean duen egoitza aterako da; Beasainera abiatuko da; gero Sarrigurenera; eta handik Albacetera. Aipatutako enpresa egitasmoaren bizitzaren emailetako bat da eta ibilbideak udalerriri horietan dituen egoitzak

Nola lagundu

Lopezek azaldu duenez, auto-istripiuen atzean, minbizia da 14 urtera arteko umeen heriotza eragiten duen bigarren kausa, eta egunean lauzpabost gaixo diagnostikatzen dira Espainian. "Hala ere, gaixotasun arrarotzat jotzen da eta instituzioek oso diru-partida txikia –batzuetan ezer ez– bideratzen dute ikerketara. 200 minbizi-mota baino gehiago daude eta ezin zaie guztiei modu berean heldu: bakoitzak bere ikerketa eta bere tratamendua behar ditu. Oso baliabide gutxi daude, eta zure umeak aurrera egingo duela ikusita beste ume batzuen alde borrokatzen jarraitzeko beharra sentitzen duzu; medikuek euren gurasoei esan ahal izateko: *Zure umeak minbizia du, baina guk bera osatzeko tresnak ditugu*".

Bere esanetan, diru-ekarpen txikiena ere ezinbestekoa da. "Pentsatu daiteke 131.000 euro oso diru-kopuru handia dela, eta, jakina, diru-kopuru handia da familia batek martxan ipinitako ekimen baterako; baina, zoritxarrez, egia esan, oso diru-kopuru txikia da. Horregatik lagun guztiak animatu nahi ditut euren ekarpena egitera, hori txiki-txikia izan arren". Hiru modu daude laguntzeko: NEN elkarteari zuzeneko diru-ekarpena eginda (neuroblastoma duten umeei eta euren familiei laguntzeko elkarteak); produktuak eta zerbitzuak zozketarako emanez; eta migranodearena.org webgunean martxan ipinitako *crowdfunding*-kanpainan parte hartuz. Informazio gehiago, gizarte-sareetan eta www.elretodepablo.com webgunean.

batuko ditu. "Erronkari ilusio handiz egingo diot aurre, aurrekoetan baino sasoi hobean egonda eta ikerkuntzan erabat sinetsita. Gainera, Pablarekin batera egingo dituzten 30 kilometroak eta hori oso handia da... Izan ere, duela zazpi urte semea gaur egun ondoan izango nuela esan balidate, zoratuta zeudela erantzungo nukeen... Horregatik, dirua batzeaz gainera, itxaropen-mezua ere zabaldu nahi dugu. Zoritarrez, minbiziak ume asko eramaten ditu, baina beste asko ere sendatzen dira eta Pablo haietako bat da. Momentu gogor-gogorak bizi arren, zoriona berriro etortzea balitekeela zabaldu nahi dugu, umeak osatu ere egiten direla, euren bizitza berreskuratu... Baina horretarako ezinbestekoa da ikertzea".

Eskola hasi berri du Pablok eta mendiko bizikletaren eskolan hasteko irrikan dago. "Oso txikia zenez, beharbada, pasatutako guztia ahaztu ahalko du; gurasook, ez: betiko markatzen zaitu... «Minbizia» entzuten duzunean, «heriotza» barneratzen duzu eta habea erortzen zaizu gainean... Nolanahi ere, gustatuko litzaidake borroka honetan dabilzan gura-

*"Erronkaren bidez
batutako dirua
baliagarria izango da
etorkizunean beste ume
batzuk sendatzeko"*

*"Dirua batzeaz gainera,
itxaropen-mezua
ere zabaldu
nahi dugu"*

soei helaraztea, zorionez, Espainian oso tratamendu aurreratuak ditugula; hortaz, adorea ez galtzea eta sendoak izan".

Poztasunak bidean

Gogotsu eragingo die pedalei lau egunean eta hiru gauean, borrokari bere aletxoak ekartzeko. "Bidean, poztasun eta sorpresa polit asko topatzen dituzu. Esa-

terako, goizaldeko 4etan mendiko herrirka batean sartzen zarenean eta plazako banku batean manta batez estalita dauden bost aititek esaten dizutenean zeure zain daudela, euren ekarpena zeuri espresuki eman nahi dizutela, erronka euren guztien bilobengatik egiten duzulako". Pablaren erronkaren bidez balioak ere zabaldu nahi dituzte, hala nola enpatia eta sakrifizioaren eta esfortzuaren saria. Horretarako, hitzaldiak egiten dituzte bizikleta-eskoletan. "Gauza batean sinesten baduzu eta zure eskura badago, ahaleginari esker lortuko duzu. Ziur nago nire taldeak eta biok lortuko dugula ahalik eta diru gehien batzea".

Hasieran aipatu moduan, aurtengoa azken erronka izango da. "Alde batetik, nirekin batera 15 laguneko lantaldea etortzen da eta bospasei egunean euren familia alde batera uzten dute. Bestetik, uste dugu Pablok ez duela bere bizitza osoa minbiziaren inguruan eman behar... Halere, esan digu urte batzuk barru erronkaren bat egitea gustatuko litzaikeela... Dena dela, ez gara guztiz desagertuko: gure gauzatxoekin jarraituko dugu, Gabonetako loteriarekin, lasterketekin...".



HEGOAN

egiteko aukerak

 POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

**BATXILERGOA ETA
LANBIDE HEZIKETA**



Eman izena!
www.txorierri.net




Euskara ikasteko aitzakiarik ez!

Txorierriko Udal Euskaltegia 1986tik ari gara euskara irakasten. Euskaltegi publikoa gara eta Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten sei udal-errietan dihardugu klaseak ematen: Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudion. 2021-2022 ikasturtean 200 ikaslelik gora izan ditugu; gure ikasle-leen artean emakumeek osatzen dute gehiengoa, 135 ikasle hain zuzen. 163 txorierritarrek izan dira eta Txorierritik kanpokoak 46. Jatorriari dagokionez, aurtentzen hainbat herritako ikasleak eduki ditugu: Argentina, Mexiko, Maroko, Brasil, Costa Rica...

Esperientzia handiko euskaltegia gara eta hainbat baliabide eta metodologia berri erabiltzen ditugu. Irakasleok ikasle-leen benetako beharrianak ditugu ardatz eta ikasle-leen parte hartzea bilatzen dugu eskolak, dibertigarriak, eraginkorrak eta atseginak izan daitezten. Ebaluazio jarraitua erabiltzen dugu eta horren bitartez, ikasle-aren aurrerapena neurtzen dugu ikasle-ari bere ikasprozesuan laguntzeko.

Lehen egunetik euskaraz hitz egiten hasten da ikaslea bai euskaltegi barruan, bai antolatzen ditugun ekintzetan. Izan ere, beti saiatzen gara esparru informalak bilatzen eta antolatzen, euskara lotsarik gabe erabiltzeko. Azken ikasturtean, pandemia dela eta ezin izan dugu ekintza askorik egin, baina hala ere Meatzaritzaren



museora, Pobaleko burdinolara, eta Magalarte Lezama upategira joan ahal izan gara. Euskararen Eguna ospatzen dugu eta Mankomunitateak antolatzen dituen ekintzetan ere parte hartzen dugu, esaterako "Aittu eta esperientziak ezagutu" edo Berbalagun egitasmoan. Horretaz gain, azken urtean kantu ikastaroa egin genuen Itsaso Arrietaren eskutik eta hamalagarren urtez txokolatada eta tostada jana egin genuen Baserri antzokian...

Maila guztiak ditugu: gaztetxoak, ez hain gaztetxoak (erretiratuak), merkataria, gurasoak, enpresetako langileak, oposizioak egin nahi dituztenak... Ordu-tegi zabala eskaintzen dugu, 09:00etatik 21:00etara eta astero lau, bost, sei eta

zazpi ordu eta erdiko moduluetako aukerak. Hala ere, norbaitek bertaratzeko arazoren bat izango balu, autoikaskuntza eskaintzen dugu bakoitzak bere etxetik bere erritmora ikas dezan.

Gainera kontuan izan euskara ikasteko dirulaguntzak dauzkagula eta ikasle-ek matrikula ordaintzeko erraztasun handiak dituztela. Beraz, ez duzu aitzakiarik zure euskara hobetzeko edo ikasteko. Zatoz Udal Euskaltegiara eta zuretzako aukerarik onena eskaintzen saiatuko gara.

Informazioa:

Herriko Plaza 3-48160 DERIO (Bizkaia)
944.540.062// 688639864
euskaltegia@txorierrri.eus





EUSKARALDIA

HITZETZ EKITEKO GARAIA DA!

Entitateek izena emateko epea zabalik!
Parte hartu Arigune moduan!

NORBANAKOEN IZEN EMATEA:
IRAILAREN 28TIK AURRERA!



NON: <https://euskaraldia.eus/>
Laguntzeko prest gaude:

 688634485

 txorierrri.euskaraldia@gmail.com



Euskaraldiaren urtea dugu aurtengoa, hizkuntza ohiturak iraultzera eta euskarari gure eguneroko elkarriketetan merezi duen tokia ematera dator. Gogotsu dator, gogor dator... eta gogotik eta gogor eragitera dator. Horixe jasotzen du, hain zuzen, aurtengo leloak: "Hitzez ekiteko garaia da! Hitzen bidez egin, hitzetik ekin, hitz egin!".

Txorierrri ere Euskaraldiaren olatura igo da eta gure kale eta auzoak Euskaraldiz jantziko ditu datorren azaroaren 18tik abenduaren 2ra.

Horretarako, Mankomunitatean, aurreko edizioetan bezala, Txorierrin Euskaraldia dinamizatuko duen koordinatzaile bat hasita dago lanean, Txorierriko sei herri-batzordeak koordinatzen. Orain arte, aurreko edizioetako balorazioa aztertzen eta aurtengo ediziorako gidalerro nagusiak zehazten ibili dira: zein entitatetara jo, nola jo, zer azaldu... Lan aberasgarria, zalantza izpirik gabe, euskara plazaren erdigunera atera nahi duen ororentzat. Udako oporraldiaren ostean, batzordeak martxan jarriko dira, berriz ere, Txorierriko herrietan. Adi, beraz, deialdietara! Herritar guztien laguntza eta gertutasuna behar izango baita Euskaraldiaren tentakuluak ertz guztietara irits daitezen.

Berba egiteko prest!

Aurten, Txorierriko gazteekin batzorde propio bat sortu nahi dugu, eurak ere zuzenean inplikatu daitezzen

Euskaraldiaren bigarren edizioan (2020) bezalaxe, hirugarren honetan ere entitateek toki berezia izango dute. Ariguneen bidez, elkarre, enpresa, eta bestelakoek arnaguneak sortzeko aukera izango dute euren arloan. Ahobizi eta belarriprest rolak hartuta, ariketa, herritarren lanpostuetara, aisialdi-ekintzetara eta abarretara zabaltzeko aukera paregabea dugu ariguneena. Zabalik dute dagoeneko entitateek Euskaraldian izena emateko aukera!

Berrikuntza gisara, Txorierriko gazteak erakarri nahi ditugu batzorde propioa sortu dezaten eta Euskaraldian

toki aktiboa har dezaten. Euskarak etorkizuna izango badu, ezinbestekoa izango da gazteak ere euskararen aldeko ekimenetako antolatzaile eta subjektu ekintzaile izatea.

Gogoan izan, irailaren 28tik aurrera, norbanakoek Euskaraldian izena emateko aukera irekiko dela. Aurten, aurreko edizioetan izena emanda egon diren herritarrek parte hartzea konfirmatu baino ez dute egin beharko. Animatu zaitzete!

Txorierriko dinamizatzailea prest dago entitate zein norbanako orori laguntza eskaintzeko, Euskaraldi aurreko prozesua samurtzeko eta Euskaraldian zehar sor litezkeen zalantzei aurre egiten laguntzeko. Hainbat bidetatik jo dezake herritarrek dinamizatzailearen laguntza bila: Instagram bidez (@txorierrikoeuskaraldia), Facebook bidez (Euskaraldia Txorierrri), posta elektronikoz (txorierrri.euskaraldia@gmail.com) eta telefonoz (688634485).

Orain ez daukagu aitzakiarik, erabili daigun gure hizkuntza Txorierriko txoko guztietan. Zu behar zaitugu horretarako! Hitzez ekiteko garaia da!

t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Galtzadak gure oraingo errepideen aitzindari izan dira. Erromatarren aurretik bideak egon ziren zalantzarik ez dago, baina ez dakigu asko horietaz. Erromatar Inperioak ahalegin handiak egin zituen konkistatutako lurak galtzaden bidez komunikatzeko, eta sare oso bat eraiki zuen. Euskal Herrian holako batzuk baditugu, baina gehienak geroagokoak dira, Erdi Aroan sortutakoak hain zuzen.

Herriak eta hiriak lurrez komunikatzeko beharra agertu zen une batean, eta barrualdea eta itsas portuak ondo lotzeko beharra ere egon zen. Horrela, bidezidorrak edo gurdibideak galtzada bihurtuz joan ziren: harriak lortu behar ziren horretarako, landu, era berezian ipini, mendiak eta errekek igaro... Horrek lana eta dirua eskatzen zuen, eta mantentze-lanak, gero.

XI. mendetik aurrera, Europatik Santiagora joaten ziren erromesek bultzادا eman zioten galtzadak erabiltzeari, Ondarroako edo Bermeoko portuetara heldu, eta Iparraldeko bidea deitutakoa erabiltzen hasi ziren eta. Beste beharrian nabarmena izan zen itsas portuak eta meseta komunikatzea, bereziki komer-



Goiko aldean, Sopuertako galtzada; behekoan, Maguma, Muxikakoa.

Galtzadak

tzioari begira. Horren adibidea da ardoaren eta arrainen galtzada, Errioxa eta itsas portuak lotzen zituena, edo mesetatik jaitsi eta Urduñatik Bilbora joaten zena, eta handik Gernikara, Bermeon amaitzeko.


Txorieritik gutxienez bi galtzada garrantzitsu igarotzen ziren. Haietako bat aipatutako Bilbo-Bermeokoa zen: Artxanda zeharkatu ostean, Zamudio, Lezama eta Larrabatzuko lurretan sartu, eta Morgatik Gernikara heltzen zen. Gehienek bezala, 2,5 metroko zabalera zuen, alboetan lauza lauak eta erdian nerbioa. Bestea Bilbo-Plentziakoa zen: Artxandatik ere sartzen zen Sondikara, Loiura, eta Lauroetatik joaten zen Laukizera.

Gure mendi-ibilaldietan hainbat galtzadaren arrastoak aurki ditzakegu, lurrean harriak jartzeko eragatik bereizten direnak. Gehienak desagertu dira edo oraingo asfaltoaren azpian egongo dira. Hori bai: bidea mendian gora zuzen bada eta aldapatsua bada, antzinako galtzada ez den seinalea da, zeren horiek portuak zeharka eta aldapa gutxi zeudela zeharkatzen zituzten.

Bilbotik Bermeora joaten zen galtzadaren zati bat egitea da gure proposamena, Lezamatik Bilbora hain zuzen. Hamar kilometro eskaseko ibilbidea da eta bidea patxadaz egitea merezi du, badago zer ikusi eta. Lezamako elizaren ondotik hasiko gara Zamudiorantz, eta Donejakue bideko seinale horiak lagun izango ditugu bide osoan. Lehenengo biribilgunearen ondoren Kurtzeko ermita dago, harrizko zutabe dotoreak dituena.

Bigarren biribilgunean kontuz ibili beharko dugu: seinale nagusiek aurrera, Zamudiorantz, jarraitzeko adierazten dute, baina guk ezkerretara egingo dugu. Hortik ere marka horiak topatuko ditugu. Hurrengo biribilgunean ere adi ibiliko gara: eskuinean oinezkoen bidexka hasten da, zuhaitzpean, paseorako benetan polita dena. Laster errekatxoa igarotzeko Erdi Aroko zubi aipagarria topatuko dugu. Errekaraino jaitsi ahal gara eta harriak behatu ahal ditugu: erdikoan gurutze bat dago mar-

Ibilbide proposamena



katuta, eta alde banatan L eta Z hizkiak; bai, Lezama eta Zamudioren arteko mugan gaude.

Bide ederrari jarraituko diogu. Autobide azpitik pasatu ostean, haren bazterretik aldapa itsusia igo, eta ezkerrean dagoen bidezidorra hartuko dugu. Aldapatsua da eta, hortaz, argi dago handik ez zela galtzadarik pasatzen. Aurrerago to-

patuko dugu asfaltoko errepidea; galtzada bere azpitik joango zen, ziur asko. Errepide nagusia gurutzatu, eta Erdi Aroko galtzadaren arrastoak ikusiko ditugu. Gunea itxita dago gaur egun, hura babesteko asmoz. Zamudiotarren galtzada moduan ere bada ezaguna.

Ostean, bide nagusitik irtengo gara. Kartel bati kasu eginez, eskuinaldeko bi-



Zelaieta-Mendiola (Abadiño)



Santa Ageda (Barakaldo)

dezidorretik segitu, eta 100 bat metrora gerra garaiko bunkerra eta lubakiak aurkituko ditugu. Eta handik 50 metrora, orain dela lau mila urte eraikitako dolmenaren arrastoak. Metro batzuk aurrerago, eskuinetara, Avril mendiko tontorrera igo ahalko gara, eta hango gotorlekua bisitatu. Hori frantsesen agindupean eraiki zuten eta karlisten garaian erabili zen. Artxandako inguru horrek badu zer kontatu. Dolmenen indusketan ibilitakoek esan zuten, leku berean topatu zituzten historiaurreko harrizko gezi-puntak, karlisten garaiko munizioa eta 36ko gerraren bonben zatiak.

Donejakue bideko markak berriro azalduko dira. Haiei jarraituta, Arabella, Begoña eta Mallonako eskaileretatik behera Bilbora helduko gara. Bidaia biribiltzeko, Unamuno plazako Arkeologi Museoan sartuz gero, beste gauza askoren artean, Artxandako dolmenetan aurkitutako geziak ikusi ahalko ditugu.



Zamudiotarren galtzada

“Sekretua da zure burua etengabe prestatzea”

IÑAKI MOLANO | bizargina

Derioztarra Estatuko zein Euskadiko hainbat txapelketatan ibilia da, baina urrian lehen aldiz izan da munduko lehiaketa batean. Zehatz-mehatz, Parisen egon da, OMC HAIRWORLD txapelketan, eta bere taldeekin batera munduko hirugarren postuan sailkatu da. Gainera, Estatuko iparraldeko ordezkari bakarra izan da taldean.

a: Gaizka Eguzkitza

Nolakoa izan da esperientzia?

Pozik nago. Bi edo hiru asterik behin Valentziara gainerako taldekideekin entrenatzera joan izan naizenez, lantalde polita eta trinkoa osatu dugu. Asko ikasi dut, lana asko garatu, azkarrago lan egin... Txapelketan 52 taldek hartu zuten parte, 1.200 parte-hartzailek, eta 20 proba-mota baino gehiago egin ziren. Guk proba bitan eman genuen izena. Probak zein puntuazioak indibidualak izan ziren eta gero taldearen hiru puntuaziorik onenak batu ziren. Postu onean gelditzea genuen helburu eta, hortaz, hirugarrenak izatea pozik egoteko modukoa da: bagenekien japoniarrek eta italiarrek ez zutela erraztasunik emango; gainera, talde berriak ere sartu ziren lehian, gogotsu.

Nolako giroa egon zen parte-hartzaileen artean?

Taldekide batzuek hainbat aldiz hartu dute parte munduko txapelketan, eta haiek kontatzen dutenez eta nik neuk Parisen ikusi dudanez, normalean giro ona eta adeitsua izaten da; esaterako, oso harreman ona izaten da italiarrek. Maila handia dago. Esan moduan, japoniarrak eta italiarrak oso onak dira. Gainera, txapelketak ez du arau zehatzik parte-hartzaileen kopuruari dagokionez, eta, hortaz, delegazio bakoitzak nahi beste partaide eraman dezake, horrela irabazteko aukera handiagoa da eta. Txinak ez du aurtengo txapelketan parte hartu, baina 200 partaide eraman ohi ditu. Italiak, bestalde, lau talde aurkeztu ditu txapelketara eta talde bakoitza

“Postu onean gelditzea genuen helburu; hortaz, hirugarrenak izatea pozik egoteko modukoa da”

“Azken bi hilabeteetan bizpahiru ordu eman ditut egunero entrenatzen: bizartegia itxi, eta gaueko 10:00ak edo 11:00ak arte”

hainbat profesionalak osatu dute. Gurea 17 lagunekoa izan da.

Herrialde horiek egiten duten gastua oso handia izango da...

Pentsa ezazue izena emateak 9.000 dolar balio duela talde bakoitzeko, eta proba bakoitzean parte hartzeak, 800 dolar partaide bakoitzeko. Eta kontuan hartu behar da ez dagoela sari ekonomikorik, lanaren aintzatespena baidzik. Lehiakide bakoitzak hara joateko eta han bertan dituen gastuak ere izan behar dira kontuan.

Nola aukeratu zintuzten Espainiako taldearen kidea izateko?

Espainiako azken txapelketa 2017an egin zen eta ni Bizkaiko taldean ibili

nintzen hartan. Ondoren, ONBK (Eder-tasun, Arte eta Lehiaketako Elkarte Nazionala) onlineko txapelketa antolatu zuen, eta munduko txapelketara joan gara onlineko txapelketa horretan parte hartu zutenak zein 2017ko txapelketan ibili ginenok.

Valentziara joateaz gainera, nola prestatu duzu zure burua txapelketarako?

Azken bi hilabeteetan bizpahiru ordu eman ditut egunero entrenatzen: 20:00etan bizartegia itxi, eta gaueko 10:00ak edo 11:00ak arte entrenatu; eta zerbait txarto ateraz gero, hurrengo egunean goizeko 7etan altxatu, eta negozioa ireki baino lehen berriro entrenatzera. Lehiaketako manikiak erabiltzen ditugu entrenamenduetarako. Horrek, alde batetik, abantaila dakar, ez dugulako modeloak libre noiz dauden zain egon behar –gainera, modelo lehiaketara eraman behar izateak beste gastu handi bat ekarriko luke–, baina, beste aldetik, desabantaila ere, batzuei eguneko 24 orduan entrenatzeko aukera ematen dielako: adibidez, Italiako lehiakide batzuek ez dute lanik egiten; euren burua lehiaketetarako prestatzen dute, besterik ez. Imajinatzen dut babesleak-eta edukiko dituztela.

Errepikatzeko moduko esperientzia izan da?

Bai. Urtarrilean Espainiako txapelketaren finala izango da Valentzian, eta han erabakiko da munduko txapelketara joango den lantaldearen partaide batzuek zeintzuk izango diren; gainerako partaideok aurtengo munduko txapelketan ibili garenok izango gara. Azken batean,



Bizkaiko Irudi Pertsonalaren elkarte

Molano Bizkaiko Irudi Pertsonalaren elkartearen idazkaria da. Elkartearen eginkizunak dira, besteak beste, egitasmoak eta prestakuntza-saioak egitea eta produktu eta joera berriak ezagutzea eta ezagutaraztea. Sektorearen gaiei eta arazoei heltzeko bideak ere topatzen dituzte, eta konponbideak. Gaur egun errebindikazio nagusi bi dituzte: alde batetik, elkarrizketan aipatutako sektorearen erregularizazioa, eta bestetik, BEZa jaistea. "Duela urte batzuk, krisi batean geundela % 8tik % 21era igo ziguten BEZa, eta gehienok oso-osorik "jaten"

ari gara igoera hori, ezin dizkiegulako bezeroei prezioak igo... Urrian oso manifestazio inportantea egingo da Madrilen eta hara joateko modua eta aukerak aztertzen gabiltza".

Elkartean 100 bazkide daude. "Gutxi gara, izan ere, jendeak orokorrean ez du asoziazionismoarekin bat egiten, batez ere gazteek, lehenasuna hasierako edo epe laburreko irabazi ekonomikoari ematen diotelako. Baina, egia esan, elkarte bari ez lirateke gaur egungo egitasmo asko existituko, ezta laguntza asko ere".



lehiatzeak esperientzia ekartzen dizu, trikimailuak ikasi, teknika, azkartasuna, hobetzea, Espainiako onenengandik eta onenekin ikastea... Familia handia garrelako eta elkarri laguntzen eta irakasten diogulako: taldea gara eta guztiok maila ona izatea interesatzen zaigu.

Molano bizartegia aitzak zabaldu zuen 1976an, eta zu txiki-txikitatik hasi zinen berari laguntzen. Ogibidea zainetan daramazu.

Gaur egun, Internet eta gizarte-sareei esker negozioa beste modu batean da ezaguna, baina aitzak asko lan egin zuen bertan eta erreferentia izan zen Txorierrin eta Mungian. Ni 13 urte nituela hasi nintzen ogibidea ikasten, akademia batera joaten nintzen, baina, ile batek eskuinetara egin behar bazuen, aitzak ez zidan uzten ile hori ezkerretara ipintzea... Oso perfekzionista zen eta bere eraginagatik naiz ni hain perfekzionista. Egia da ahalegin handia eskatzen duela, eta familiari, lagunei,

zaletasunei... denbora kentzen diela; hala ere, ordainsaria du: zure burua hobetzea. Polita da ikustea hobetuz joaten zarela.

Aldaketa handia egon da urte haue-tan?

Batez ere *hipster*-ek ekarri zuten aldaketa... Nik bizarra labanaz egitea ilea moztea baino lehenago ikasi nuen, baina zaharkituta geundela esaten ziguten; gero, bat-batean, batzuk hasi ziren guk aurretik egiten genuena egiten eta haiek modernoak ziren... Orain dela urte batzuk inork ez zuen esaten bizargina zela; guztiak ziren gizonen ile-apaintzaileak. Gaur egun, berriz, guztiak dira bizarginak.

Gainera, bizartegiak ugaritu dira azken urteotan.

Horrek arazoa ekarri dio sektoreari, negozioa ipintzen duten gehienek ez dutelako sektoreari lotutako ikasketarik, eta, hala ere, negozioa abian jartzeko inongo trabarik ere ez dute: ondorioz, sektorea erregularizatzeko borrokan ga-

biltza aspalditik. Nolanahi ere, beste aldetik, gauza ona ere ekarri digu, zeren eta bizartegi horiek eskaintzen duten ile-moztea egiten trebatu behar izan baitugu. Eta, gainera, trebatu gara behar moduan, hau da, prestakuntza-saioen bidez. Eskola zaharrekoak gara gu eta abantaila daukagu, ilea labanaz zein artaziz mozten dakigulako, testurizatzen... Makinaz mozteko teknika, bizartegi horietan erabiltzen dutena, erraz ikasi daiteke.

Oso moda aldakorretako sektorea da zuena; hortaz, behar-beharrezkoa da etengabeko prestakuntza.

Nik guztiengandik ikasten dut: elkar- teek eta marka komertzialek antolatzen dituzten ikastaroen prestatzaileengandik zein, ni ere prestatzailea naizen heinean, ikasleengandik. Izan ere, beti dago zer praktikatu, zer hobetu eta zer ikasi: batek artaziak modu batean edo bestean zergatik hartzen dituen, ilea zergatik lehortzen duen eta gero moztu... Datoren urtean Espainiako selekzioaren prestatzaile ibiliko naiz, gainera.

Noren edo zeren menpe daude modak gaur egun?

Momentuko futbol-jokalariak duen ile-moztearen menpe daude, edo gizarte-sareetan ikusten denaren menpe... Modak orokorrean oso aldakorak izan arren, apur bat gehiago irauten duten joerak daude; esate baterako, boladan daude *mullet*-ak, ilea buruko albo bietan larru-arras moztea, mohikanoen krestak,

"Lehiatzeak esperientzia ekartzen dizu, teknika, azkartasuna... Espainiako onenengandik eta onenekin ikastea"

"Aita oso perfekzionista zen eta bere eraginagatik naiz ni hain perfekzionista"



degradatuak... eta horiek aspaldian ere egiten ziren.

Futbol-jokalariak aipatuta, Athletic-eko jokalaririk batzuk zure bizartegiaren bezeroak dira.

“Duela urte batzuk guztiak ziren gizonen ile-apaintzaileak; gaur egun, guztiak dira bizarginak”

Lezama oso hurbil dago eta beti etorri da baten bat. Gauza da azken urteotan bizartegira lehen taldeko eta batzordeko 11 lagun-edo etorri ohi izan direla. Nik berdin-berdin tratatzen ditut bezero guztiak eta harreman adeitsua dut guzti-guztiekin.

Bizartegia erreferente da derioztarrentzat ez ezik alboko herrietako biztanleentzat ere bai. Zein da sekretua?

Gogotsu lan egitea, zure burua etengabe prestatzea, azken joerak ezagutzea, gauzak ahalik eta ondoen egitea eta bezeroak zu tratatzea gustatuko litzazukeen moduan tratatzea. Gurea etengabeko bilakaeran murgilduta dagoen

“Guztiengandik ikasten dut: prestatzaileengandik zein ikasleekin; beti dago zer praktikatu eta hobetu”

sektorea da eta ezinbestekoa da hobetzea; bestela, atzean geldituko zara. Inportantea da bezeroak zuri zerbait eskatu eta bizartegitik nahi zuen irudia duela atera dadila. Era berean, bezero hori ezagutzea ere bada inportantea, eta hainbat alderdi kontuan hartu, ondoen datorkion edo berarentzat egokiena den orrazkerari, ile-mozteari, irudiari... buruzko aholkuak eman ahal izateko.

Zeintzuk dira zure etorkizuneko planak?

Esandakoak: jarraitzea nire burua etengabe prestatzen, beste profesional batzuk prestatzen, hobetzen eta hazten, eta gauzak ondo egiten saiatzen.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia

TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA

EUSKARA IKASTAROA 22/23

Maila guztiak (16 urtetik gorakoentzat)
Ikastaroen iraupena: urritik ekainera

Orduetegi zabalak:
Astean 10 / 7,5 / 6 / 5 / 4 ordu
Autoikaskuntza

Matrikula zatitan ordaintzeko aukera
Dirulaguntzak: % 50-% 75

Matrikulaldia: Irailaren 1etik 27ra

EUSKARA GUZTIONTZAK

Hiretzat
Niretzat
Harentzat

Herriko Plaza, 3 - DERIO Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38 euskaltegia@txorierri.eus

"Klubeko emakumea naiz"

Iraia Iturregi loiuztarrak baikortasunez egingo dio aurre denboraldi berriari, bere hirugarrena Athleticen eserlekuan. Emakumezkoen taldeko entrenatzaileak iazko emaitzak hobetzea eta klubeko talentuari eustea jarri ditu helburutzat.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Athletic Club

Zelan denboraldiaurrea?

Ondo. Aurten, jokalaria gazte eta berri asko ditugu eta egokitze prozesuan gabiltza. Denbora beharko dugu. Denboraldiaurrean emaitzak ez dira garrantzitsuak, baina talde atzerritarren kontra maila ona erakutsi dugu. Euskal Kopan, aldiz, Erreala hobea izan zen eta galdu genuen. Irrikan gaude Liga hasteko.

Zeintzuk dira aurtengo helburuak?

Taldea egonkortu nahi dugu. Sei jokalaria galdu ditugu eta beste sei etorri dira euren ordez. Presidenteak eta biok horren berri eman genuen prentsaurrekoan eta bertan iazko denboraldia hobetu nahi dugula esan genuen. Kalitate handiko jokalariai joan dira, baina gure gazteek ere badute talentua. Eta talentuari eutsi nahi diogu.

Jokalaria on batzuk beste talde batzuetara joan dira. Zergatik?

Presidenteak esan zuenez, batetik diruarengatik, kanpoan gehiago irabazten dutelako; eta bestetik, kirol-proiektuarengatik, kanpoko taldeak goi-mailako txapelketak irabazteko faboritoak direlako. Egoera zein den badakigu; lanean gaude hobetzeko.

Jokalaria garrantzitsu batzuek -Vanessa, Moraza, Erika eta Lucia- utzi dute kluba. Aurten, taldea hobea ala okerragoa da?

Ez bata, ez bestea, desberdina. Lucia eta Erika taldeko jokalaririk onenetarikoak ziren, baina jokalaria gazte on batzuk ditugu eta beste batzuek aurrerapausoa egin beharko dute. Agian, indibidualki

IRAIA ITURREGI |

Athleticen emakumezkoen taldeko entrenatzailea



Erreferentea

Iraia Iturregi Sustatxa loiuztarra (1984) erreferentea da Athleticen: guztira, 15 denboraldi eman zituen talde zuri-gorrian eta 401 partida jokatu; 2010ean, oraindik jokalaria zela, hasi zen entrenatzen eta harrezkero kategoria guztietatik ibilia da. 2017an, erretiroa hartu zuen, baina bigarren taldean hasi zen; 2021ean, azkenean, lehenengoan. "Lezaman eman dudan ibilbidea oso aberasgarria izan da", esan du Iturregik.

Loiuztarrak ez du bere karrerari buruz gehiegi pentsatzen, egunero-

kotasunari arreta jarri nahiago baitu. "Nire lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz eta erreferentea banaiz, ederto, esate baterako, beste emakume entrenatzaileak motibatzen. Lezaman lan piloa egiten da hainbat arlotan: kirola, gizartea, emakumearen ahalduztzen, emakumezkoen futbola merezi duen tokira eramaten... Nire ustez, hau da garrantzitsuena: ohera joan eta lasai lo egin, egunero ahal dudana guztia egin dudalako, bai taldearen, bai klubaren onurarako. Eta klubak aintzat hartzen du nire lana, beraz, poz-pezik nago".

*“Gazteek Athleticen
beste talde batzuetan
baino aukera handiago
dute lehenengo
taldean jokatzeko*

irudimena eta eskarmentua galdu ditugu, baina taldeko giroa oso ona da eta jokalariek motibatuta daude.

Jokalaria batzuk Espainiako selezioarekin txapeldunak izan dira gazte mailan –Ane Elexpuru, Clara Pinedo eta Maite Zubieta–. Jokatzeko aukera izango dute aurten ala goizegi da?

Eurek, errendimenduaren arabera, esango dute noiz egongo diren prest lehenengo taldean jokatzeko. Gauza bat da Europako txapelketa gazte mailan irabaztea; eta beste bat da Ligan, munduko jokalaririk onenen kontra, aritzea. Egoitze prozesua egon behar da, baina gazteek jokatzeko estimulua izango dute lehenengo taldean edo bigarrenen, Bigarren Mailak ere exijentzia handia duelako. Gure filosofiarengatik, gazteek Athleticen beste talde batzuetan baino aukera handiago dute lehenengo taldean jokatzeko.

Zelan Jon Uriarte presidente berriarekin?

Ondo. Hauteskuendek ziurgabetasuna sortzen dute Athleticen profesionalengan. Hala ere, hemen jarraituko nuela jakinda joan nintzen oportetara. Horrek konfiantza

*Entrenatzea asko
gustatzen zait eta, esate
baterako, ez dut nire
burua ikastola baten
irakasle ikusten*

ematen dizu. Uriartek gertutasuna eta inplikazioa adierazi dizkigu.

Entrenatzaileen ibilbideak ez dira klub berean luzeak izaten. Zelan ikusten duzu etorkizuna, Athleticen betiko ala beste talde baten entrenatzaile?

Klubeko emakumea naiz eta orain gustura nago hemen. Dena dela, Lehenengo Mailako entrenatzaileok jakin badakigu, emaitza onak ez badira, zer gertatu ahal den. Edozein gauza gerta daiteke. Beraz, egunerokotasunean jartzen dut arreta. Ez dakit zer egingo dudan bost urte barru. Entrenatzea asko gustatzen zait eta ez dut nire burua ikastola baten irakasle ikusten. Errendimenduari lotutako lana oso estresagarria da, baita nire bokazioa ere. Arlo horretan ikusten dut nire burua.

Bukatzeko, emakumezkoen futbolari buruz galdetu behar dizut. Aurrerapausoak egin dira, baina noraino hel daiteke?

Ingalaterrako Liga erreferentetzat hartzen dut. Bertako klubek eta federazioak inbertsio handia egin dute zenbait esparrutan: marketinean, partida guztiak ematen dira telebistan, estadio onenetan jokatzen dute... Estatuko Ligan, aldiz,



gauza asko hobetu behar dira: talentu handiko jokalariek izan arren, ez dugu jakin produktua behar bezala saltzen; zelaiak hobetu behar dira ikuskizunaren onurarako; partidak telebistan eman behar dira, horren bidez, babesleak ere etorriko direlako... Apurka-apurka profesionaltasunera hurbiltzen gabiltza, teknikarion eta jokalarien baldintzak asko hobetu direlako, eta horrekegonkortasuna emango digu, baina lan handia dago egiteko. Azken bolada honetan, gatazka asko egon dira emakumezkoen futbolaren inguruan eta penagarria da. Liga eta Federazioa elkarrekin joango bagina, emakumezkoen futbola arinago garatuko litzateke. Eta gauzak ondo egiten badira, ziur nago etorkizun hurbilean Estatuko Liga munduko onena izan daitekeela.

GABONETAKO LOTERIA

aikor!
txorierriko aldizkaria

40229

t/a: Gaizka Eguzkitza

"Arazo orokorra izan arren, ematen du inork ez zuela lehenengo urratsa eman nahi. Eta hori Larrabetzun panpa-lezkarik ez! taldeak egin du. Elkartea Gym berdea proiektuaren haritik sortu da. Horren bidez, ariketa fisikoa egiten dugu, natura inguruan zaintzen dugun bitartean. Lehengo udazkenean panpa-lezka moztzen hasi ginen. Handik aurrera, lagun batzuek bat egin dute gurekin", esan digu Jokin Serra taldekideak. Eduardo Cordero lagun horietako bat da. "Elkartean kide gutxi gaude, sei lagun inguru, baina beste talde batzuk ere inplikatzeko dira. Arazoa da lana etengabe egin behar dela, eta horrek lantalde konprometitua eskatzen duela. Taldekideok astelehenero eta barikuro batzen gara lan egiteko", aipatu du.

Auzolanez aparte, elkartekideek lau urteko plangintza egin zuten, panpa-lezka herritik erabat ezabatzeko. "Lehenengo urtean, ahalik eta landare gehien kendu behar da; eta hurrengoetan mantentze-lanak egin. Panpa-lezka Kantabriatik sartu zen Europara eta han arazoa izugarria da. Bertako elkarrekin 20 urteko epea jarri dute landarea Kantabrian erabat ezabatzeko". Serraren eta Corderoren esanetan eragin handiena kostaldean dago eta Txorierrin, "Asuan eta Derion, seminario inguruan".

Lana arautzeko, taldekideek aplikazio informatikoa atera dute. "GoogleMapsen markak jartzen ditugu; horrela, badakigu panpa-lezka non moztu dugun, zenbat, ea erabat ezabatu dugun landarea... Aplikazioan edozeinek edita dezake qr kodearen bidez". Landareak egutegi propioa du, eta horren arabera lan egin behar da: uztailaren 15etik abuztuaren 15era bitartean da gomendagarria landarea mozte. Epe horretatik kanpo, landarea errotik atera behar da. Iaz, larrabetzuarrek 3.000 landare moztu zituzten.

Erakundeen laguntza

Elkarrekin panpa-lezkaren arriskuen berri eman dute Larrabetzuko eskolan. Gainera, laguntza eskatu diete erakunde publikoei. "Larrabetzuko Udalak dirulaguntza eman zigun eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuorria argitaratu du, arazoaren berri emateko, esate baterako. Bizkaiko Foru Aldundiak ekintza batzuk sustatu ditu, baina ez dira nahikoak. Izan ere, eragile guztien kooperazioa

Panpa-lezkarik ez!

Panpa-lezka landarea lehenengo mendean ekarri zuten Hego Ameriketatik etxeak eta lorategiak apaintzeko. Hala ere, espezie inbaditzailea da eta bertoko biodibertsitatea suntsitzen du. Arazoari konponbidea emateko, Larrabetzun panpa-lezkarik ez! taldea sortu zuten iaz. Guztira, 3.000 landare ezabatu dituzte.



Larrabetzun, Agarre auzoan egindako ekintza bat. Beheko aldean, qr kodea, panpa-lezkaren mapa editatzeko.

*"Enpresa handiak
(Euskotren, aireportua...),
erakunde publikoak
eta lurzoruen jabeak
inplikatu behar dira"*



lortu behar da: Euskotren, Gas Natural, aireportua... Enpresa horiek lerro-formako azpiegiturak kudeatzen dituztelako eta hortik landarea bereziki zabaltzen delako".

Bestalde, lurren jabeak ere inplikatu behar dira. "Askotan, panpa-lezka lur pribatuetan ateratzen da eta jabeek ezabatzeko eta datozen urteetan mantentze-lana egiteko konpromisoa hartu behar dute". Horren haritik, taldekideek panpa-lezka kentzeko deialdia egin die txorierriarrei, nor bere etxean. Horretarako, aitzurra, plastikozko poltsak luma-mototsak bertan gordetzeko, kimatzeko artaziak eta eskularruak baino ez dira behar. "Jendeak kontuz ibili behar du: luma-mototsak ez dira gehiegi mugitu behar, bertan haziak daudelako. Lumak moztu eta gero, poltsetan gordetzen dira eta Artigaseko erretegira bidali. Hostoak, konposterako erabili ahal dira, eta oinarria eta sustriak, lurretik atera eta buelta eman, dena sikatzeko. Hezetasunik eta eguzkirik ez badago, erraz sikatuko dira".

Informazioa:

panpalezkarik@gmail.com

Landare inbaditzailea

Panpa-lezka, *cortaderia selloana*, duela 100 urte etorri zen Ameriketarik, etxeak eta lorategiak apaintzeko. Garai hartan, bakarrik emeak ekartzen ziren, ikusgarrienak, eta ondorioz, hedapena ez zen hain handia izan. 1950. hamarkadan, aldiz, gerraosteak ekarritako goseari aurre egiteko, garia ekarri zuten Argentinatik. Eta horrekin batera panpa-lezkaren haziak ere etorri ziren Santanderreko portura, alegia. Eta handik alde atlantiko osora zabaldutako, Portugaletik Britainaraino (Frantzia). Kantabria, esate baterako, panpa-lezkaz beteta dago.

Panpa-lezkek arazo batzuk sortzen ditu: batetik, azkar hedatzen da eta bertako flora desagerrarazten du, espezie inbaditzailea baita, hau da, lurraren emankortasuna eta paisaiaren kalitatea murrizten ditu, baita basoen emankortasun ekonomikoa ere. Gainera,

udazkenean loratzen direnez, uda ostean ere ekartzen dizkiete arazoak alergia dutenei. Panpa-lezka espezie inbaditzaileen katalogoaren barruan dago, hau da, debekatuta dago horren jabea izatea eta landa lantzea, leku batetik bestera eramatea eta saltzea edo erostea. Legeak jabeak behartzen ditu euren lureregutik panpa-lezka ezabatzea.

"Landarea batez ere errepedeetan eta trenbideetan zabaltzen da, haziak airearen bidez mugitzen direlako; beraz, A8 autopista egin zenean, Kantauriko kostaldean zabaldutako. Oso garrantzitsua da zonalde horietatik ezabatzea, autoek haziak barreiatzen dituztelako, eta zonalde horietatik basoetara zabaltzen direlako. Landare eguzkizalea da eta bakoitzak 100.000 hazi ditu", azaldu dute Larrabetzun Panpa-lezkarik ez! elkartekoek.

TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com




Udako oporrak

Aketza Moreno



Foz de Arbaiun, Estitxu Pérez



Peratallada (Girona), Idoia Andres

Consuegra de los Molinos (Toledo), Itsasne Zubiri



Tarragona, Iratxe Pirla

Riaño, Jon Etxebarria



San Martín de Empúria (Girona), Idoia Andres

Ehun zutabeetako kobazuloa (Arnedo), Jesus Maques



Esti Odriozola



SUIT DELUX
25.
URTEURREINA

dorelan
DE ACTIVE

Team Trek Segafredoren Partner Teknikoa

SUIT DELUX

Ohea aldatzen dizugu,
bizitza hobetzen dizugu

BILBAO Ledesma 32 | Tf. 944 145 875
DERIO Seminario | Tf. 944 545 147
LEIOA Av. Iparragirre 80 | Tf. 944 316 516

www.suitdelux.com

Gazteak ere euskaraz aritzeko prest!

Erronka berri bati heltzeko asmoa dugula hasiko dugu ikasturtea: gazteak Berbalagun egitasmora hurbiltzea. Iaz, lehenengo urratsak egin genituen horretarako, eta hiru ekintza antolatu: sukaldaritza-tailerra, mendi-ibilbideak eta *scape room*-a. Eraitza erabat positiboa izan zen eta datozen hilabeteetan ere gazteentzako ekintzak antolatuko dira.

Ekintzak modu erakargarrian eta praktikoan diseinatu ziren, gazteek lagunaren artean euskaraz ondo pasatzeko. Mendi-ibilbideei esker, parte-hartzaileek Txorierriko bazterrak ezagutzeko aukera izan zuten, eta, gainera, gunea bat garbitu. Sukaldaritza-tailerra, bestalde, Txorierriko Baserri Antzokiko txokoa egin genuen eta bertan ikasi genuen taloia, patata-tortilla eta paella prestatzen. Azkenean, erlojuren kontra hainbat proba gainditu behar izan genituen *scape room* batetik atera ahal izateko.

2022-2023 ikasturtean ere gazteentzako ekintzak egingo dira gazteei begira, aisialdia lagunekin euskaraz emateko aukera gehiago izan dezaten eta berbalagun izan daitezten. Gainera, euren beharrezan eta gustuak kontuan hartuko dira ekintzak antolatzeako orduan. Izan ere, Berbalaguneko taldeetako partaideak aspalditik ohartu direnez, aisial-

Ohiko taldeak eta gurasolagun taldeak ere martxan dira

diak hamaika aukera ekartzen dizkigu euskaraz aritzeko, dakiguna freskatzeko eta euskara-maila hobetzeko. Beraz, gaztea bazara, adi egon, berandu gabe ekin-tzen berri emango dugu eta.

Nolanahi ere, nahiz eta hain gazte ez izan, zuk ere adi egon beharko duzu, ikasturte berriari indarrak berrituta eta gogotsu helduko diogulako. Berbalagunen taldeak berriro ipini ditugu martxan eta partaideak irrikan daude elkar ikusteko eta euskaraz bizitzeko. Zu bakarrik falta zara haiekin kafea hartzeko, mendira joa-

teko, arte-erakusketak bisitatzeko, sukaldarian aritzeko edota gure bazterrak ezagutzeko. Hizkuntza hobetzeaz gainera, ikusiko duzu aisialdia euskaraz ematea ere erakargarria baino erakargarriagoa dela. Eta seme-alaba txikiak baduzu, ez izan zalantzarik eta eman izena Gurasolagun egitasmoan. Euskara praktikatzeko ez ezik hamaika jolas eta abesti ere ikasiko dituzu umeekin egiteko.

Beste alde batetik, hasierako lerroetan esan moduan udako oporretatik gogotsu etorri garenez, ahalegin berezia egingo dugu Loian berbalagun taldea osatzeko eta Larrabetzuko eta Lezamako taldeak indartzeko. Era berean, mendiko taldeak martitzenetan biltzen jarraituko du, eta Bizkaiko parajeak deskubritzen. Hortaz, gaztetxoa, gaztea, heldua zein nagusia izan, eskaintza zabala egiten dizu Berbalagun egitasmoak. Aitzakiarik ez, Txorierrin euskaraz bizitzeko.



a: Thirdman, www.pexels.com



**berba
lagun**

telefonoa:
63575 35 95

e-maila:
txorierrri.berbalaguna@gmail.com

antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

mendian

Indarrean dauden neurriak bete beharko dira

Mintzen **POZA** PRAKTIKATU



aurzotan

ZUREKIN

euskaraz

EGIN NAHI DUGU

parkean



tabernan



IZEN-EMATEA: Urte osoan zehar

📞 635 753 595 – txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzaileak

Babesleak

Laguntzaileak



PAI BITARTEANeko erabiltzaileak ere oporretara joan dira



t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Urtero moduan, Emaus Gizarte Fundazioak Derion duen PAI BITARTEAN eguneko zentroak 15 eguneko oporraldia antolatu du eguneroko erabiltzaileentzat. Egitasmoaren helburua da udan planik ez dutenei abuztu diferente bat eskaintzea. Ekintzak kulturari, kirolari edo gastronomiari lotuta egon daitezke.

Egitasmoan erabiltzaileek eurek hartzen dute parte: haiek aukeratzen dituzte ekintzak eta haiekin batera egiten da plangintza. Era berean, haiekin batera antolatzen da proposamen bakoitza: txartelak erostea, garraiobidea, ekintzak zenbat denbora iraungo duen kalkulatzea... Asmoa da pertsona hauen autonomia bultzatzea eta aisialdi osasuntsua antolatzeko gauza izan daitezela.

Aurten, abuztuaren bigarren hamabostaldia aukeratu genuen oporretarako. Lehen astean, Bizkaigane egitasmoa bisitatu genuen Errigoitin, eta oso interesgarria izan zen. Hura abeltzaintzako egi-



tasmoa da eta han esneki ekologikoak ekoizten dituzte. Albaola egitasmoa ere ezagutu genuen. Egitasmoaren ardatz nagusia da Pasaian dagoen antzinako baleontziaren erreplika egitea. Azkenik, Kantabriaraino joan ginen, penintsulako labirintorik handienean barruratzera.

Bigarren astean, Urdaibaiko Bird Centerera joan ginen txoriak behatzera eta hegaztien migrazioari buruz ikastera. Era

berean, itsasontziz joan ginen Bermeotik Gaztelugatxera. Oporrak biribiltzeko, barbakoa itzela egin genuen Viveron, eta Elgetara hurbildu ginen Intxorta mendiko lubakietatik bisita gidatua egitera. Izan ere, leku horretan borroka handia izan zen 36ko gerran.

Oporraldia antolatzeak ahalegin handia eskatzen duen arren, merezi du, PAI Bitartean eguneko zentroaren erabiltzaileek interes handia azaltzen dutelako eta, hortaz, parte-hartzea handia delako. Horregatik, urteko gainerako hilabeteetan ere antzeko ekintza puntualak antolatzen ditugu zentrorra etortzen diren pertsonen gustuak kontuan hartuta.

Laburbilduz, gizarretik kanpo dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen udan bestelako planak egiteko aukera ematea atsegingarria da oso. PAI Bitartean eguneko zentroko langileok lanean jarraituko dugu erabiltzaileei eguneroko zerbitzuez gainera aipatutako aisialdi-aukerak eskaini ahal izateko eta, horrela, gizarte-inklusioari ekarpena egiteko.

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

Bizkargi Kafetegia
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



Intsusa

t: Txiribita / a: www.wikipedia.com

Sambucus nigra. Euskal Herriko landerik ohikoenarikoa da. Adar askoko zuhaixka da eta 6-8 metro luze izan daiteke. Bere loreak zuriak dira, oso txikiak, eta multzokatuta daude luku-eran. Lantza-puntaren itxurako hostoak ditu, hortzdunak, eta txikiak eta mamitsuak diren fruitu beltzak, kolortzaile pupura dutenak. Intsusa martxotik ekainera bitartean loratzen da, eta fruituak udan ematen ditu. Loreak, hostoak, fruituak eta bigarren azala biltzen dira.

Sukaldean

Baia heldu-helduak jan behar dira; bestela, mingotsak dira. Fruituak erabilita prestatu daitezke marmeladak, xarabeak eta ardoak. Loreak ere jan daitezke: arrautza-irinetan pasatu eta olio berotan frijituko ditugu; azukrea botako diegu gainetik.

Ezaugarri sendagarriak

Barne-erabilera:

Loreak espektoraizaileak eta hanturaren aurkakoak dira. Era berean, baliagarriak dira arnasbideetako gaixotasunak arintzeko. Fruituak erabilita xarabeak prestatu daitezke, eta loreak erabilita, infusioak.

Infusioa egiteko, sutan katilukada bat ur ipiniko dugu. Irakiten denean, sua itzaliko dugu eta koilarakada bat intsusalore gehituko dugu. Hamar minutuan jalkitzen izango dugu. Kantitate handiago egin nahi izanez gero, 20-30 g lore erabiliko dugu ur litro bakoitzeko. Infusioa baliagarria da eztula arintzeko, flemak kanporatzeko, defentsak igotzeko eta gaixotasun biralei aurrea hartzeko eta aurre egiteko. Egunean bizpahiru katilukada hartu behar dira.

Arnasketa-arazoak arintzeko errezeta egiteko, bestalde, sutan bi katilukada ur ipiniko dugu. Irakiten denean, sua itzali, eta gehituko ditugu bi koilarakada intsusalore, milorri-adar txiki bat eta menda-adaxka bat. Hamar minutuan jalkitzen utziko dugu. Limoi baten ura eta koilarakada bat ezti lagunduta hartuko dugu. Egunean sei aldiz hartu daiteke. Infusio hau baliagarria da gripea, eztula eta bronkitisa arintzeko.

Kanpo-erabilera:

Infusioa erabilita begiak garbitu daitezke, lagungarria baita konjuntibitisa eta begitxindorrek arintzeko. Infusioa ondo iragazi behar da gaza fin batek lagunduta. Beste aldetik, adarren azal sekundarioa erabilita ukendua egin daiteke erredurak, kolpeak eta ospelak sendatzeko.

Hartu ondo ezagutzen duzuna, neurritz eta soilik lekuan asko badaude. Utzi beti zerbait, eta ez atera landarea sustraitik. Ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira. Ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan. Hartu dezakezu larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan, galdatu gabeko basoetan, toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ batu areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan. Hartu goizean. Erabili eskularruak...

Intsusa-ukendua egiteko, 300 g azal sekundario ipiniko dugu litro erdi oliotan. Berotuko dugu, baina erre barik. Ondoren, nahasia iragazi eta 50-60 g erlargizari gehituko dugu. Urtzen utziko dugu, poliki-poliki, eta poto garbietan gordeko dugu; potoei ukendua hozten denean ipiniko diegu estalkia.

Erabilera kosmetikoak

Aurpegiko larruzala garbitzeko, lore-infusioa egin eta lurrunak hartu daitezke. Poroak zabaldu eta garbitzen ditu, eta aldizka egiten bada, aurpegiko larruzala leuntzen du.

Ortuan

Hosto- eta lore-infusioa xaboi apur batekin (detergenterik ez) nahastu daiteke, eta landare-zorriei aurre egiteko erabili.

Kontraindikazioak

Haurdun daudenek edo titia ematen dabiltzanek neurritz hartu behar dute. Azukrea kontrolatzeko botikak hartzen dituzten pertsonak, berriz, ezin dute hartu.

Ez erratu

Intsusa eta akamailua nahasi daitezke batzuetan, oso landare antzekoak izateaz gainera, bata bestearen ondoan hazi dira eta. Ez erratzeko, hauek dira haien arteko ezberdintasunak: akamailua urteko landarea da, eta intsusa ez; akamailua intsusaren azpian hazten da; intsusaren adarrak gorantz hazten dira eta gero beherantz zintzilikatzen dira; akamailuaren adarrak, aldiz, gorantz hazten dira eta bere hostoak zuzenagoak dira.

Dart, asteroideetan bilarrean "jokatzen"



t: Xabier Diaz / a: www.nasa.gov

Filmak eta natura-zientzietako klaseak tartean, aspalditik dakigu dinosauro eta beste espezie batzuen kretazikoko suntsipena asteroide batekin erlazionatuta dagoela. Ez da meteorito batek sortutako talkaren kasu bakarra, eta badira bai Lurrean, bai beste planeta eta satelite batzuetan horrelakoen aztarnak; horien artean daude Arizonako Barringer kratera edo 500 km-ko diametroa duen Saturnoko lapetus ilargiaren Engelier kratera.

Atmosfera sartzean meteoritoak birrindu egiten dira gehienetan, eta meteoroa sortzen dute, hizkera arruntean izar iheskorra, izarloka edo izar uxoa esaten zaiona. Baina nahiko handiak direnean ez dira guztiz desegiten, eta puskak handiak badira, arazoak sor ditzakete. Zorionez, horrelako kasuak oso gutxitan gertatzen dira, espazioa oso zabala da eta; beraz, talka horiek gertatzeko aukera oso txi-

kia da. Baina dinosauroei galdetu... Gertatzen dira...

Alde batetik, arazoak ditugu halako gorputzak detektatzeko. Esaterako, Chicxulub kratera eta kretazikoko suntsipena eragin zuen meteoritoa 10 km-ko diametroa zuela uste da. Ortzi zabalean hori ez da ezer, baina nahiz eta detekzio-sistemak geroz eta hobeak diren, baliteke meteoritoa antzeman orduko berandu izatea.

Bestetik, zenbait filmetan ikusi dugun bezala, ez da batere ideia ona halakoren bat leherraraztea Lurretik gertu dagoela. Izan ere, bere barruko propietateak zeintzuk diren ez badakigu, ezin dugu jakin zati bakar batean edo hamaika zatitan lehertuko den, ezta zatiek zein ibilbide hartuko duten ere, edo Lurrera zenbat jausiko diren.

2021eko azaroan, NASAk 500 kg-ko espazio-ontzia, DART misioa, bidali zuen espaziora. Bere jomuga Didymos 65803

asteroide-sistema binarioaren Dimorphos satelitea da, eta helburua, hori era kontrolatua desbideratzea. Helmugara ailegatzenean, bere sentsoreak erabilita, satelitearen azterketa geologikoa egingo du haren propietateak hobeto ezagutzeko. Era berean, satelitea desbideratzen saiatzen denean, bere jokaera zein izango den aurrez jakiteko aukera ekarriko du. Kontuan hartu behar da DART Lurretik 11 milioi kilometrora bidali dela, 23 km/s-ko abiadura doan eta bakarrik 160 metroko diametroa duen gorputza kontrolatzera. Ez da makala, ez.

Batzuetan, zalantzan jartzen da halako egitasmoetan inbertitzen den dirua. Kontuan izan beharra dago haien garapenean zientzia eta teknologia asko aurreratzen direla eta emaitzak beste esparru askotara zabaltzen direla. Gainera, hobe dugu hurrengo asteroideak Lurraren kontra egin baino lehen prest egotea. Dinosauroei galdetu bestela.

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

**Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areiltza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai seguru Facebooken

Ardi-txakurra edo artzain-txakurra

Bertsozaleari "ardia" berbak zer dakarkio burutara



a: Vito Giacari (www.pexels.com)

t: Juan Luis Goikoetxea

Iraileko artikulua honetan ardi-txakur berbaren alde agertuko gara, artzain-txakur ere onartu arren. Hiztunentzat esanguratsuagoa da txakurraren zeregina, hau da, ardiak zaintzea, haren jabe den artzainaren izena baino. Beste horrenbeste esan genezake erbi-txakurraz, zeren erbitarakoa baita, edo arratoi-txakurraz, arratoiak harrapatzeko trebea da-eta.

Ardia, bestalde, intsektu bizkarroia ere bada, arkakusoa edo kukusoa deitua;

pertsoneri eta zenbait animaliarri odola zurruputzen diena.

Kontua da –orain txakurrez inguraturik bizi garenean– Mirenek eta Xabierrek jarraian datorren elkarrizketa izan dutela:

–Miren: Txakurra erosi duzu, Xabier?

–Xabier: Bai, ardi-txakurra!

–Miren: Baina ez daukazu ardirik-eta!

–Xabier: Berak txakurrak ekarriko ditu.

Edozelan ere –hasierako harira itzuliz–, artzaina ardiak zaintzen dituen pertsona dela esaten da, baina artikulua

honetan ardi-jagolea erabiltzea egokiatzat jotzen dugu. Gertatzen da artzain berba zabalduago dabilela ardi-jagole baino, zaindu jagon baino sarrago entzuten delako eskolan. Nahiz eta Euskaltzaindiaren bi sailak Iker Saila eta Jagon Saila diren, Jagon Saila izanik euskararen estatus sozialaz arduratzen dena.

Historiari jotzen badugu, Kristo aurreko VII. milenioan baziren ardiak. Izatez, mundu zabaleko ugaztun hausnarkaria da; 1.200 milioi buru ari dira belarra jaten. Orduan, ardi euskaldunik, hau da, euskal kulturakorik, ez ote da? Euskal izatea ez ote da unibertsal izatea? Kultura bakoitzeko sinbologian, literaturan, tradizioan, presentzia berezia du ardiak nahiz artzainak.

Hara, euskaraz bizi diren euskaldunei ardia entzutean, hots bereko hitzak edo kide direnak egingo diete oihartzuna beraien belarrietan: ardia; erdia, eguerdia, izerdia. Ostera, "Oveja" entzuten duenak, erraz gogora lezake: "Cada oveja con su pareja"; edo "sheep" entzunik zalantza: "ship" ala "sheep" idatzi? Euskal kultura bizi bazara, kultura unibertsaleko ardia geurea ere izango da, baina gure kulturako berezitasunak dituen.

Ardiak eta artzainak eragin handia dute gure kultura: manex ardia ardi mota bat da, eta manexa Zuberoakoa ez den euskara; Donostian "Artzain Ona" eliza bada. Atsotitzetan dozenaka esaldi indartsu daukagu: "Ardia ahuntzari ile eske"; "Ardi galdua!"; "Ardi erren asko bada, ardi-jagole txarra".

Hau lehorte beldurgarriau amaiturik, euria etorriko denean, ardi-txabolan Erronkari gazta jaten ibiliko dira ardi-txakurra eta ardi-jagolea!



ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00



EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria 9€

T: 94 454 55 55
Bestorene 5, Behea
48160 DERIO



Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

Etxeko sukaldaritza

Meloizopa hotsa

t: M. Lekerika / Alleksana (Pexels)

Osagaiak (lau pertsonentzat):

- Meloizopa bat (2-2,5 kilokoa)
- 4 kipula handi
- 200 ml oliba-olio
- Menda-hosto batzuk (apaintzeko)

Prestatzeko era:

Kipula garbitu, txikitu era su ez-tian erregosiko dugu. Meloia ere garbituko dugu, eta azala eta haziak kendu. Kipula eginda dagoenean, meloia gehituko dugu. Ontziari estalia ipiniko diogu eta su ertainean erregosiko dugu 20 minutu inguru. Beharrezkoa izanez gero, ur apur bat gehituko dugu. Ondo irabiatuko dugu irabiagailuaz. Hozten utziko dugu eta menda-hosto batzuk erabiliko ditugu apaintzeko.

Izokina
barazkiekin**Osagaiak (bi pertsonentzat):**

- 250 g-ko 2 izokin-trontzo
- 2 patata ertain
- Kipula bat
- Azenario bat
- Baratxuri-atal bat
- Piper gorri bat
- Piper berde bat
- Edalontzi erdi ur
- Edalontzi erdi ardo zuri
- Oliba-olioa
- Gatza
- Piperbeltza

Prestatzeko era:

Patatak eta azenarioa xerra mehetan ebakiko ditugu; kipula, juliana eran; eta piperrak, dadotan. Baratxuria txikituko dugu. Labeko erretilu batean zabalduko ditugu barazkiak. Edalontzi erdi ur botako dugu, barazkiak erretiluan ez itsasteko. Gatza eta piperbeltza botako dugu, olio-zurrustada bat ere, eta labera sartuko dugu (aurretik 200 gradutan berotuta). Hogeita hamar minutu pasatu eta gero, labetik aterako dugu. Izokin-trontzoei gatza eta piperbeltza botako diegu, eta barazkien gainean ipiniko ditugu, azala gorantz begira. Ardo zuri apur bat botako dugu, eta 20 minutuan izango dugu egiten.

ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



PAZKO KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarro politzaria | Diagonal 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 94 454 10 06 | info@paxi.coop | www.paxi.coop



Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N

www.gaminiz.com



Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu. a: recrekids.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Black is Beltza II* - Ainhoa (Elkar), Fermin Muguruza eta Susana Martín. Ilustrazioa: Harkaitz Cano.
–*Antzinako berri-berriak* (Igela), Kae Tempest. Itzulpena: Itziar Diez de Ultzurrun Sagalà.
–*Ardo* (Gaztelupeko hotsak), Morau eta Beñardo.

LITERATURA: GAZTEAK

–*Iruleak* (Txalaparta), Garazi Albizua Castelao. Ilustrazioa: Olga Carmona.
–*Hemendik ez pasa* (Txalaparta), Isabel Minhos Martins. Ilustrazioa: Bernardo Pego; itzulpena, Garazi Arrula.
–*Eraiste bola: Gizajo baten egunkaria 14* (Alberdania), Jeff Kinney.
–*Traktoretxo eta oreinkumea* (Ttartalo), Natalie Quintart. Ilustrazioa: Philippe Goossens.

Sudokua

7				1	9
	1		3	8	2
6		2			
		8	6		
	9			4	1
	3	9	4		7
	2		8		
				9	3
		4			1

8	1	5	2	3	4	6	7	9
7	5	2	3	4	6	7	9	8
4	8	5	1	7	6	9	2	3
1	3	2	5	9	8	4	7	6
8	1	3	9	5	4	2	6	7
6	7	8	4	1	3	2	7	9
2	4	7	8	6	1	3	9	5
3	6	8	2	1	9	7	5	4
5	6	8	2	1	7	4	3	9
7	2	4	6	8	5	1	3	9



Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06



Azokak

Loiu

> XXVIII. Azoka. Urriaren 16an, 10:00etatik 15:00etara, Zabaloetxe auzoan.

Zamudio

> Nekazamudio. Urriaren 1ean.

Larrabetzu

> Larrabetzuko produktuen azoka. Urriaren 23an.

Hitzaldiak

Zamudio

> Buruko gaixotasunak. Urriaren 8an, 20:00etan, Gaztestazioan.

Larrabetzu

> Literaturaz Berbetan: Alberto Barandiaranen *Gurea falangista zen* liburua. Urriaren 20an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Loiu

> *La senda del pastor* filma. Urriaren 15ean, 20:00etan, Alonsotegi plazan.


Zamudio

- > Ipuin-kontalaria: Hodeiekin dantzan, Aitziber Izquierdoren eskutik. Urriaren 29an, 11:30ean, liburutegian. Izena eman behar da: 944 520 204 eta udalliburutegia@zamudio.eus.
- > Beldurrezko pelikulak. Urriaren 28tik 30era, 21:00etan, Gaztestazioan.

Lehiaketak

Zamudio

- > Just dance. Urriaren 1ean, 20:00etan, Gaztestazioan.
- > Futbol-mahaia. Urriaren 15ean, 20:00etan, Gaztestazioan.



Alberto Barandiaran
a: Goiena

Musika

Larrabetzu

> Domekak Hori Bain: Habia. Urriaren 25ean, 18:30ean.

Ospakizunak

Larrabetzu

> Akarbaltz Gaua. Urriaren 31n.

Tailerrak

Zamudio

- > Arimen Gauerako argizari birziklatuak prestatzea. Urriaren 22an, 20:00etan, Gaztestazioan.
- > Gore. Urriaren 31n, 18:00etan, Gaztestazioan.

Bestelakoak

Larrabetzu

> Oierren omenezko saioa. Urriaren 18an, 19:30ean, Hori Bai gaztetxean.

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tif. / Faxa:
94 452 29 10

aikor!
txorierriko aldizkaria



Konekta zaitez gurekin!



Parte hartu aikor.eus webgunean

Zure argazkiak eta albisteak bidali




E-posta:
aikortxori@aikor.com



WhatsApp:
688 86 41 35

Porrotx eta Marimotots

KUIKUI



URRIAK 28
BARIKUA 28

18:00 ETAN
ZAMUDIOKO
KIROLDEGIAN

SARRERAK 8€
SALGAI URRIAREN 3TIK AURRERA

Online: www.zamudio.eus (jarduerak eta bonoak)

Zamudion: Estankoan eta Liburudendan

Derion: Txapas tabernan

Bazkideentzat 6€

Urriaren 3, 4 eta 5ean 18:00etatik 19:00etara
Lagatzuko lokalean